


Euskal AEko industri jarduera %0,3ko urte arteko tasara hazi zen 2005eko urtarrilean

Aurreko hilaren aldean, 2004ko abenduaren aldean, %1,4 hazi zen

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2005eko urtarrilean, lan egutegiko termino homogeneotan %0,3 hazi zen Euskal AEko industri jarduera, 2004ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2005eko urtarrilean %1,4 hazi zen industri produkzioa, 2004ko abenduarekin alderatuta. Joan zen abenduan hil arteko tasak %2,5eko atzerakada izan zuen, beraz, urtearen lehenengo hileko hil arteko bilakaerak suspertzeko joera markatu zuen, aurreko urteko azken hilaren aldean.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua



Iturria: Eustat.

Sektore-bilakaera

Sektoreka eta industri sektore handien sailkapenaren arabera, 2005eko urtarrileko indizearen bilakaerak hazkundeak izan zituen *energian* (%1,1), *ekipo-ondasunetan* (%0,1), eta *kontsumo-ondasunetan* (%1,0), 2004ko urtarrilaren aldean. Azken horiek bitan banatzen dira: *kontsumo-ondasun ez iraunkorrek* urte arteko %2,6ko hazkundeak izan zuten, eta *kontsumo-ondasun iraunkorrek*, aldiz, %2,1eko atzerakada. Bestalde, *bitarteko ondasunek* urte arteko tasa negatiboak izan zituzten 2005eko urtarrilean, %-0,3koa, hurrenez hurren.

2005eko urtarileko urte arteko aldakuntzak positiboak izan ziren 2004ko abenduaren aldean industri sektore handientzat: *ekipo-ondasunak* %3,4 hazi ziren, *bitarteko ondasunak* %1,8, *energia* %0,3 eta *kontsumo-ondasunak* %0,6; horien barruan, *kontsumo-ondasun ez iraunkorrak* %0,9 hazi ziren, baina *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %0,1 jaitsi ziren.

Bilakaera lurralde historikoka

Lurralde historikoaren arabera, Industri Produkzioaren Indize Orokorren urte arteko bilakaerak desberdinak izan ziren: %3,6 hazi zen Bizkaian, baina %3,5 murriztu zen Araban eta %1,3 Gipuzkoan.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasak ere, 2005eko urtarilekoak 2004ko abendukoaren aldean, desberdinak izan ziren: %2,6 hazi zen Bizkaikoa eta %1,6 Gipuzkoakoa, baina %1,5 jaitsi zen Arabakoa.

Taula: 2005eko URTARRILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	urt05/urt04	At/At-1 (1)	ene05/dic04	dic04/nov04
Indize orokorra: Euskal AE	0,3	0,3	1,4	-2,5
Araba	-3,5	-3,5	-1,5	-3,5
Bizkaia	3,6	3,6	2,6	-2,6
Gipuzkoa	-1,3	-1,3	1,6	-1,9
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	1,0	1,0	0,6	-1,8
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-2,1	-2,1	-0,1	-1,2
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	2,6	2,6	0,9	-2,1
Ekipo-ondasunak	0,1	0,1	3,4	-4,8
Bitarteko ondasunak	-0,3	-0,3	1,8	-2,8
Energia	1,1	1,1	0,3	-4,6

(1) t urteko urtariletik azken hileraren metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat

Oharra: Eurostatek "Methodology of Short-term Business Statistics. Interpretation and Guideliness. 2002 edition" agirian egindako gomendioen arabera, 2005eko urtariletik aurrera, Eustatek bere azterketetan egutegi-eraginak zuzendutako serieak erabiliko ditu urte arteko hazkunde-tasarako (m/m-1) eta metatuetarako (At/At-1) eta serie desestazionalizatuak hil arteko tasarako (m/m-1). Datu gordinak ere erabiltzaileen eskuan izango dira Eustaten web orrian eta datu-bankuan.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp